

## Arabieraren alfabetoan idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistema

### 1 AURKEZPENA

Ekialde Ertaineko eta Ipar Afrikako toponimia aztertzean (ikus 164. araua) heldu behar izan zion Euskaltzaindiak arabieraren transkripzioaren gaiari. Gaiaren azterketa zabala eta xehea eginda, alfabeto horretan idatzitako izenak euskarara aldatzeko sistema finkatu da, eta sistema horretako irizpideak aplikatu dira arau hartan, ohiko irizpidez gainera, beharrezkoa izan denean (hau da, transkripzioa beharrezkotzat jo denean, ez sistematikoki) euskarazko ordainak emateko.

Hemen zehazten den transkripzio-sistema, dena den, ez da leku-izenetarako bakarrik. Berdin-berdin erabil liteke, adibidez, pertsona-izenetan ere. Horiek horrela, Euskaltzaindiak egoki iritzi dio egindako azterketa-lana eta hartutako irizpideak aparteko arau batean argitaratzeari, leku-izenen arauan (164. araua) agertzen ez diren arabieraren eremuko gainerako leku-izenak, baita lurralde horietako pertsona-izenak ere, euskarara nola transkribatu behar diren zehazteko. Nolanahi ere, kontuan izan behar da arabiar onomastikaren esparrua konplexua dela eta hizkuntza-irizpide huts-hutsak ez direla aski errealitate konplexu hori bere osoan atzemateko: irizpide soziolinguistikoak eta pragmatikoak ere kontuan hartu beharrekoak gertatzen dira ez gutxitan<sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup> Azterketa egitea eta transkripzio-proposamena Exonomastika batzordearen ardura izan bada ere, bermea lortzearen, proposamena Miren Lourdes Oñederra fonologian aditu eta euskaltzain osoari eta Zeinab Shawky Sayed Mohammed\* EHUko arabierazko irakasleari bidali zitzaien. Haien oharrak eta oniritzia jaso ondoren osatu da transkripzio-sistema.

\* Berak erabiltzen duen grafia.

## 2 ARABIERARI BURUZKO JAKINGARRIAK

### Datu nagusiak

1- Arabiera hizkuntza ofiziala da 25 estatutan:

Aljeria, Arabiar Emirerri Batuak, Bahrain, Djibuti (frantsesa ere bai), Egipto, Eritrea (hizkuntza ofizialik ez badago ere), Irak (kurduera, asiriera, turkomanera ere bai), Israel (hebreera ere bai), Jordania, Komoreak (frantsesa, komoroera ere bai), Kuwait, Libano, Libia, Maroko (amazigera ere bai), Mauritania, Oman, Palestina (ofizialki estatua ez bada ere), Qatar, Saudi Arabia, Siria, Somalia (somaliera ere bai), Sudan, Tunisia, Txad (frantsesarekin batera) eta Yemen.

2- Arabierak, hainbat dialekto baditu ere, aldaera estandar moderno bat du, eskolan, literaturan, egoera formaletan eta komunikabideetan erabilia arabiera ofiziala den estatu guztietan. Arabiera klasikoa Koranaren hizkuntza da; bera da aldaera estandar modernoaren oinarria.

3- Arabiera eskuinetik ezkerrera idazten da, letra etzanez eta letrak elkarri lotuz; horren ondorioz, letra bakoitzak lau forma edo aldaera izan ditzake: bata bakarrik idazten denean, beste bat hitz baten hasieran, beste bat hitzaren erdian eta beste bat hitzaren amaieran. Ez du letra larririk, eta hitza ezin da moztu lerroaren amaieran; hala ere, letren arteko lotuneak nahi beste luza daitezke testua lerrokatuta uztearren.

4- Ia-ia beti, grafema bakoitzari fonema bat dagokio, ez baitago ia letra muturik ezta posizio jakin batean edo beste batzuei lotuta balio fonologikoa aldatzen duenik. Eskualdearen arabera, letra batzuen balio fonetikoak ez dator bat arabiera klasikoan duenarekin, eta berezitasun horiei eutsi egin ohi die hiztunak arabiera estandarra erabiltzen duenean ere. Dena den, arabiera estandarrak ahoskera estandarra du.

### Arabiar alfabetoa

1- Arabieraz gainera, aldaera batzuekin (perso-arabiar alfabetoa) persiera, urdua, paxtuera, uigurrera eta beste hizkuntza asko idazteko ere erabiltzen da arabiar alfabetoa.

2- Arabiar alfabetoak (arabieraren alfabetoak) oinarritzko 28 letra ditu. Letra batzuk oso antzekoak dira, baina letraren erdiaren gainean edo azpian jarritako puntuen bidez bereizten dira. Eta puntuak letraren parte dira, fonema desberdinak adierazten dituzten letra desberdinak bereizteko balio baitute. Adibidez, **ب** eta **پ** transliteratu

ohi diren arabiar letrek forma bera dute, baina lehenengoak puntu bat du azpian (ب) eta bigarrenak bi puntu ditu gainean (ت).

3- Gorago esan bezala, letra bakoitzak lau forma izan ditzake (hitz-hasieran, hitz-barnean, hitz-amaieran eta bakarturik idazten denean). Badira sei letra, dena den, forma bakartua besterik ez dutenak (أ, ب, ج, د, هـ, ز); beraz, letra horiek hitz batean gertatzen direnean, ondorengo letrak (baldin badago) nahitaez hitz-hasierako forma (edo forma bakartua) hartu behar du, hau da, sei letra horiek hitza etetea eragiten dute, gainerako letrekin hitzak unitate grafiko bat osatzen baitu, letren arteko zuriunerik gabe.

4- Oinarrizko 28 letrez gainera, badira beste letra batzuk, kanpoko hitzak idazteko erabiliak:

پ — *Pā*, /p/ fonema adierazteko erabilia.

چ — *Čā/chā*, /tʃ/ fonema adierazteko erabilia ("tx"). Dena den, ohikoa da ت ش *tā'* eta *šīn* letren konbinazioa erabiltzea /tʃ/ fonema adierazteko.

گ — *Gāf*, /g/ fonema adierazteko erabilia.

ژ — *Že/zhe*, /ʒ/ fonema adierazteko erabilia. Dena den, normalean ش (*šīn*) letra erabiltzen da /ʒ/ fonema adierazteko.

5- Oinarrizko letrez gainera, zeinu diakritikoak ere erabiltzen dira. Bokal laburrak adierazteko, diakritikoak ezartzen dira silaban bokalaren aurrean dagoen hitzaren gainean edo azpian. Ohiko arabiera idatzian, bokal laburrak ez dira idazten, baina Koranean eta haurrentzako testuetan idatzi ohi dira. Bokal luzeak ي eta و erdikontsonanteekin eta alif (ا) zeinuarekin adierazi ohi dira. Diakritikoak erabiltzen dira, halaber, silaba itxiak (kontsonantez amaitzen direnak) adierazteko, baita kontsonante bikoiztuak (geminatuak) adierazteko ere (و).

## Arabiar alfabetoaren oinarrizko karaktereak eta dagozkien fonemak

Testuinguruaren araberako formak				Izena	Balio fonetikoa (IPA)
Bakaturik	Bukaeran	Tartean	Hasieran		
ا	ا	—		'alif	zenbait, /a:/ barne
ب	ب	ب	ب	bā'	/b/
ت	ت	ت	ت	tā'	/t/
ث	ث	ث	ث	ṯā'	/θ/
ج	ج	ج	ج	ǧīm	/dʒ/ / ʒ/ / g/
ح	ح	ح	ح	ḥā'	/ħ/
خ	خ	خ	خ	ḫā'	/x/
د	د	—		dāl	/d/
ذ	ذ	—		ḏāl	/ð/
ر	ر	—		rā'	/r/
ز	ز	—		zāi	/z/
س	س	س	س	sīn	/s/
ش	ش	ش	ش	šīn	/ʃ/
ص	ص	ص	ص	ṣād	/sˤ/
ض	ض	ض	ض	ḏād	/dˤ/
ط	ط	ط	ط	ṭā'	/tˤ/
ظ	ظ	ظ	ظ	ẓā'	/ðˤ/ / /zˤ/
ع	ع	ع	ع	'ayn	/ʕ/
غ	غ	غ	غ	ǧayn	/ɣ/
ف	ف	ف	ف	fā'	/f/
ق	ق	ق	ق	qāf	/q/
ك	ك	ك	ك	kāf	/k/
ل	ل	ل	ل	lām	/l/ (Allah hitzean soilik)
م	م	م	م	mīm	/m/
ن	ن	ن	ن	nūn	/n/
ه	ه	ه	ه	hā'	/h/
و	و	—		wāw	/w/ / /u:/ / /au/
ي	ي	ي	ي	yā'	/j/ / /i:/ / /ai/

## Arabiera latindar alfabetora aldatzea: arabieraren erromanizazioa

Arabiar alfabetoa latindar alfabetora aldatzea ez da lantegi erraza. Kontuan izanik arabieraz eskuarki bokalak ez direla idazten, bokalik gabeko transliterazioak ez luke informazio nahikoa emango hitza behar bezala ahoskatzeko. Adibidez, **قطر** hitzaren transliterazio baliokide bat **qtr** izango litzateke, eta ez luke zentzurik izango arabieraz ez dakienarentzat. Horregatik, transliterazioa osatu egin behar litzateke (testuan ez dagoen informazioa emanaz), arabieradun batek lehendik dakien informazioa erantsiz: **qaṭar**. Horregatik, arabierazko hitzak latindar alfabetora letraz letra aldatu beharrean (transliterazioa) ohikoagoa da transkripzioa egitea, hau da, hitz bakoitzaren hotsa adieraztea helburu-hizkuntzaren ortografia-arauak erabiliz: **Qatar**.

Transkripzioak entzuten denari erreparatzen dio; transliterazioak, berriz, ikusten denari. Transkripzioan informazio fonologikoa (hala nola bokalak) edo morfologikoa (hala nola asimilazioak) erants daiteke. Bestalde, transkripzioa aldatu egin ohi da helburu-hizkuntzaren idazmoldearen arabera; hau da, transliterazioak latindar alfabetora aldatzen du arabiar alfabetoaz idatzitakoa, eta bakarra da, latindar alfabetoa erabiltzen duten hizkuntza guztietarako balio baitu. Transkripzioa, berriz, helburu-hizkuntza bakoitzera moldatu ohi da. Horregatik, adibidez, frantsesez **Mouammar Kadhafi** (besteak beste), eta gaztelaniaz **Muammar El Gaddafi** (besteak beste) transkripzioak erabiltzen dira. Gainera, hizkuntza bakoitzaren barnean transkripzio-mota bat baino gehiago erabili ohi direnez, askotariko transkripzioak batera erabiltzen dira. Adibidez, ingelesez, *Time* aldizkariak eta BBCk **Muammar Gaddafi** erabiltzen dute; Associated Press, CNN eta Fox komunikabideek, berriz, **Moammar Gadhafi**; AEBko Estatu Departamentuak **Mu'ammār Al-Qadhafi** erabiltzen du, eta Txinako Xinhua News Agency erakundeak **Muammar Khaddafi** erabiltzen du ingelesezko berrietan. Eta Libiako [alqadhafi.org](http://alqadhafi.org) webgune ofizialak **Muammar Alqadhafi** erabiltzen zuen.

Transliterazio idealak itzulgarria izan behar luke: arabiar alfabetotik latindar alfabetora eta alderantziz anbiguotasunik gabe transliteratzeko modua ziurtatu behar luke. Fonema bakun bat transliteratzeko digrafoak erabiltzen badira eta digrafoak ondoz ondo kokatutako bi fonemari dagozkion bi grafemarekin nahasteko aukera baldin badago, edo bi fonema desberdin grafema beraren bidez transliteratzen badira, edo fonema batzuk adierazteko sinboloak elkarren oso-oso antzekoak badira (adibidez, ` eta ' eta ´ diakritikoak erabiltzea fonemak desberdintzeko), transliterazioa ez da “perfektua” izango.

Transkripzioa transliterazio zehatza baino egokiagoa gertatzen da arabiera idatzia ezagutzen ez duten baina latindar alfabetoa ezagutzen dutenentzat. Transliterazio-sistema zehatz batek ikasketa berezi bat behar luke sistema ulertzeko eta izenak behar bezala ahoskatzen ikasteko, eta hori ez da publiko orokorraren kasua. Horregatik, ez litzateke erabilgarria gertatuko, zehaztasuna alferrik galduko bailitzateke erabiltzaile trebaturik gabe.

Arabiera latindar alfabetora aldatzeko transliterazio- eta transkripzio-sistema ugari daude. Hauek dira nagusiak:

- ISO: ISO/R233 estandarra, 1961ean sortua, ISO 233 estandarrak ordeztua 1984an eta ISO 233-2 eranskinaz osatua 1993an. ISO 232-2 transliterazio-estandarra informazio bibliografikoa tratatzeko (indexatzeko, katalogatzeko, erreferentziak egiteko) prestatu zen, testuen koherentzia ahal den gehiena bermatzearren, ISO 233

estandarra ez baitzen horretarako behar bezain egokia. Karakterez karaktere egiten da transliterazioa: arabiar alfabetoaren karaktere bakoitzari latindar alfabetoaren karaktere bakar bat dagokio, eta zeinu diakritikoak erabiltzen ditu. ISO 233-2 estandarra Ipar Afrikako liburutegietan erabiltzen da, eta sistema hori erabiltzea aholkatzen du ISSN zenbakiaren ardura duen erakundeak argitalpen periodikoak katalogatzeko.

- UNGEGN (United Nations Group of Experts on Geographical Names) (1972): Nazio Batuen mendeko taldeak egina da, leku-izenak latindar alfabetora aldatzeko nazioarteko sistema estandar bat lortzeko helburuarekin sortua. Beiruten 1971n bildutako arabistek sortu zuten, arabieraz hitz egiten duten estatuetako ordezkarien oharrak eta eranskinak jaso ondoren (hori dela eta, *Beiruteko sistema* deritzo). 2003an UNGEGN taldearen txosten batek honela zioen: *Ez dago erabateko ziurtasunarekin esaterik arabieraz hitz egiten duten estatuetatik zeinek onartu duten ofizialki sistema. Nagusiki estatu bakoitzaren iturrietan oinarrituta argitaratutako nazioarteko produktu kartografikoetan erabiltzen diren izenei erreparatuta, badirudi Nazio Batuen sistema gutxi-asko ohikoa dela Iraken, Kuwaiten, Libian, Saudi Arabian, Arabiar Emirerri Batuetan eta Yemenen, nahiz eta sarritan sistema zeinu diakritikorik gabe erabiltzen den. Siriako leku-izenetan, berriz, nazioarteko mapetan Nazio Batuen sistema erabiltzen da, baina Siriako bertako erabileran frantses kutsuko transkripzioa hobesten da. Egipton eta Sudanen ere bertako erromanizazio-sistemetan ere Nazio Batuen sistema erabiltzen da. Aljeria, Djibuti, Mauritania, Maroko eta Tunisian, berriz, frantses ortografiaren araberako transkripzioa erabiltzen da.*

2002an, bi aldaketatxo egin zizkieten Beirut sistemari. Eta 2007an Izen Geografikoei buruzko Hirugarren Arabiar Konferentziak, Beiruten egindako bileran, beste estandar bat proposatu zuen, aski konplexua.

- BGN/PCGN (1956). Nazio Batuen sistema bezalakoa da. Alde bakarra artikuluen tratamenduan dago : NBren sisteman artikulua letra xehez hasita idazten da eta marratxo batez lotzen zaio izenari: *al-Başrah, ar-Riyād*. BGN/PCGN sisteman, berriz, ez da marratorik erabiltzen artikulua eta izenaren artean, eta artikulua lehen letra maiuskulaz idazten da : *Al Başrah, Ar Riyād*.

- DIN 31635 (1982). Alemaniako Normalizaziorako Institutuak emandako estandarra. Oso erabilia da Mendebaldeko estatuetan arabiar herrialdeei buruzko lan akademikoetan (Frantziar *translittération Arabica* deritzo). Arauaren oinarria DMG Alemaniako Elkarte Orientalistak (*Deutsche Morgenländische Gesellschaft*) emandako arauak dira, eta prestigioa du, Carl Brockelmann-en katalogoan eta Hans Wehr-en hiztegian erabili zelako. Letra xeheak baino ez ditu erabiltzen, eta ez du digramarik erabiltzen; lau diakritiko-mota erabiltzen ditu.

- IGN (1973). (Beiruteko sistemaren B aldaera ere baderitzo). Nazio Batuen UNGEGN taldeak, ikusirik tradizio frankofonoko herrialde arabiarrek (Aljeria, Maroko, Tunisia, Mauritania, Libia, Komoreak, Djibuti) administrazioan, komunikabideetan eta kartografian frantses fonetikaren araberako transkripzioa erabiltzen jarraitzen zutela, 1973an Beiruteko sistemaren frantses kutsuko aldaera bat sortu zuen.

- ALA-LC (1997). AEBko Kongresuko Liburutegiak ezarritako sistema. Nazio Batuen sistemaren oso antzekoa da.

- *Encyclopaedia of Islam* (1960) Entziklopedia hori ikerketa islamikoei buruzko erreferentzia-obra nagusia da, eta bere transliterazio-sistema du.



Sistema ofizial guztiak gorabehera, ikusten da sistema horiek ez direla erabiltzen lan espezializatuetatik kanpo. Horregatik, komunikabideetan eta dibulgazio-lanetan sistema horien aldaera sinplifikatuak erabiltzen dira. Gainera, ez dira sinplifikazioak beti-beti erabiltzen; ondorioz, grafia-aniztasuna da nagusi transkripzio sinplifikatuak erabiltzen direnean ere.

Kontuan hartu behar da, gainera, estatu batzuetan frantsesa ere hizkuntza ofiziala dela (Txaden, Djibutin, Komoreetan), eta, beraz, estatu horietako leku-izenek latindar alfabetoan emandako izen ofiziala ere badutela. Edo, Marokon, adibidez, administrazioaren arlo batzuetan eta irakaskuntzan frantsesa erabiltzen dela.

### **3 ARABIERAZKO IZENAK EUSKARARA ALDATZEKO TRANSKRIPZIO-SISTEMA**

Arabierazko izenak euskarara aldatzeko, hauek dira irizpideak:

1- Goi-mailako lan akademikoetan edo espezializatuetan, erabateko zehaztasuna behar denean eta alderantzizko transliterazioa egiteko modua ziurtatu behar denean, komeni da ISO 233 (edo ISO 233-2) sistema edo DIN 31635 sistema erabiltzea, nazioarteko estandarrak baitira.

2- Transliterazio-sistema horiek zeinu diakritiko bereziak erabiltzen dituztenez, ez dira erabilgarriak goi-mailako lan espezializatuaren eremutik kanpora. Euskarazko ohiko erabileran (komunikabideak, literatura, irakaskuntza ez-espezializatua eta dibulgazioa), hau da, publiko kultu baina arabiera arrotza gertatzen zaionari zuzendutako era guztietako lanetarako, euskararako transkripzio praktikoa bat, transkripzio sinplifikatu bat, erabiltzea da gomendioa, gure inguruko erdaretan egiten den moduan. Transkripzio horren helburua da arabieraren hotsak euskararen ohiko grafemekin, baita euskarak bere-bereak ez izan arren euskal alfabetoak dituen gainerako grafemekin ere, adieraztea, ahal den neurrian hurbiltzea.

3- Arabierazko ohiko testuak euskaraz eskaintzeko, hau da, hitz, pertsona-izen edo esaldi arruntak, atsoitzak, otoitzak eta toponimoak idazteko, bi alfabetoen arteko egokitasuna ezarri eta baliokidetasun-taula bat prestatu da, ohiko transkripzio fonetiko erraztua egiteko balio dezakeena, gorago adierazi bezala.

Halere, arabiar herrialdeek izandako europar kolonizazioa ere gogoratu beharra dago. Horren ondorioz, arabiera mintzaira ofizial nagusia den estatu askotan, aldi berean, maiz, ingelesa, frantsesa edota espainiera kulturarako eta kanpo-harremanetarako hizkuntza gisa mantendu dira orain arte, eta halaxe ezagutarazi dira bertako leku-izenak ere. Horregatik, batzuetan, potentzia kolonialak bere garaian erabilitako grafia zabaldu da nazioartean, ez arabieraren gaur egungo grafiatik transkribatutakoa.

Adibidez, Marokoko *Casablanca* leku-izena erabiltzen da gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez, eta ez da arabierazko izena transkribatzen (*Ad-Dar al-Baida*); beste hainbeste gertatzen da *Larache* hiri-izenarekin (transkribatuta, *Al-Araix* litzateke), edo Aljeriako *Oran* (arabieratik transkribatuta, *Wahran*) eta *Bechar* hiri-izenekin (arabieratik transkribatuta, *Baxxar*); edo Tunisiako *Medenine* hiri-izenarekin (arabieratik transkribatuta, *Madanin*).

Era berean, arabiar herrialdeetako izen historiko eta klasikoen tradizio ezberdinak ere baditugu (*Sidon* [klasikoa] / *Saida* [gaur egungoa]; *Damasko* [klasikoa] / *Dimaxq* [gaur egungoa]; *Alexandria* [klasikoa] / *Al-Iskandariya* [gaur egungoa]...). Horregatik, arabiar toponimo nagusiak, espainol, frantses, italiar edo ingeles ortografietara izandako egokitzapenaren arabera, ezberdin transkribatzen dira latindar alfabetoan, eta inoiz bertako ebakera dialektala ere islatzen da, hori jatorrizko arabiar grafian sekula agertu ez arren. Hor dugu, adibidez, *oued* / *ouad* / *wad* 'ibaia', *djebel* / *djabal* / *jabal* 'mendia', bertako idazki, dokumentu, kartel eta bide-seinale elebidunek erakusten dutenez. Edo Egiptoko *Suez* hiria (gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez hala erabiltzen da), jatorria Egiptoko arabieraren dialektoaren ahoskeran duena, eta ez arabiera estandarrean (*As-Suwais*).

Nazioarteko joerak kontuan izanda, gurean ia inolako tradizioz ez duten toponimo urrunak direnean, zentzuzkoena tokian tokiko usadio ofiziala errespetatzea da —arabieratik euskarara transkribatzeko taula itsu-itsuan aplikatu beharrean—, kasu batzuetan frantses-transkripzioa (Marokon, Aljerian, Tunisian edo Libanon, kasu), beste batzuetan gaztelaniarako (Ipar Marokon eta Mendebaldeko Saharan) eta besteetan ingeleserakoa hobetsiz (Libian, Egipton edo Arabian, adibidez), gainerako hizkuntza gehienetan hala egiten denean<sup>3</sup>.

---

<sup>3</sup> Hala gertatu ohi da, batzuetan, gaur egungo arabierazko pertsona-izen batzuekin ere. Grafia jakin batekin nazioarteratzen dira (frantses-moldeko transkripzioarekin edo ingeles-moldeko transkripzioarekin), eta grafia hori erabiltzen da gero hizkuntza gehienetan. Hala gertatu ohi da, adibidez, kirolariekin (konparazio batera, **Hicham El Guerrouj** marokoar atletaren izena frantses-moldeko transkripzioarekin zabaldu da, eta grafia hori erabiltzen da frantsesez ez ezik, gaztelaniaz, ingelesez, alemanez... ere). Halakoetan, euskaraz ere nazioarteko joerara biltzea da zuhurrena. Baina, esan bezala, jokabide hori ez da sistematikoa. Nazioartean jokabide bateraturik ageri ez denerako da erabilgarri euskararako transkripzio-taula.

# Arabierazko izenak euskarara aldatzeko transkripzio sinplifikatua

## 1- Kontsonanteak

### Taulako zutabeen esanahia

- Ezkerretik hasita, lehenengo lau zutabeetan letraren forma ageri da: 1- bakarturik dagoenean; 2- hitzaren bukaeran gertatzen denean; 3- beste letra batzuen artean gertatzen denean hitzaren barnean; 4- hitzaren hasieran gertatzen denean.
- 5. zutabea, letraren izena ageri da; haren azpian, dagokion fonema, nazioarteko alfabeto fonetikoaren arabera adierazia.
- 6. zutabea, bi transliterazio-sistema: ISO 233 eta DIN 31635. Bi sistemen transliterazioak bat ez datozenean, bakoitzaren ordaina zein den esplizitatzen da.
- 7. zutabea, Nazio Batuen UNGEGN (United Nations Group of Experts on Geographical Names) taldearen 1972ko transkripzio-sistema (UN); Estatu Batuetako PCGN (Permanent Committee on Geographical Names) eta Erresuma Batuko BGN (Board on Geographic Names) erakundeek 1956ko transkripzio-sistema (BGN-PCGN); AEBko Kongresuko Liburutegiaren transkripzio-sistema (ALA-LC).
- 8. zutabea, ingelesezko komunikabideetan erabili ohi den transkripzio sinplifikatua, BGN-PCGN sisteman oinarritua.
- 9. zutabea, gaztelaniarako EFE agentziak proposatutako transkripzio sinplifikatua.
- 10. zutabea, frantsesezko komunikabideetan erabili ohi den transkripzio sinplifikatua (Nazio Batuen transkripzio-sistemaren B aldaeraren bertsio sinplifikatua).
- 11. zutabea, alemanezko komunikabideetan erabili ohi den transkripzio sinplifikatua (Iturria: alemanezko Wikipedia).
- 12. zutabea, Institut d'Estudis Catalans (IEC) erakundeak 1989an katalanerako proposatutako transkripzio sinplifikatua.
- 13. zutabea, euskararako proposatzen den transkripzio sinplifikatua.

Arabiera 1 : bakarturik ; 2 : hitz- bukaeran ; 3 : tartean ; 4 : hitz- hasieran				Letra- izena eta fonetika (IPA)	ISO 233 DIN 31635	UN BGN- PCGN ALA-LC	en (sinpl.)	es (EFE)	fr Beirut, B aldaera (sinpl.)	de (Wikiped ia)	ca (IEC, 1989) sinpl.	Euskara	Oharrak
1	2	3	4										

Arabiera 1 : bakaturik ; 2 : hitz- bukaeran ; 3 : tartean ; 4 : hitz- hasieran				Letra- izena eta fonetika (IPA)	ISO 233 DIN 31635	UN BGN- PCGN ALA-LC	en (sinpl.)	es (EFE)	fr Beirut, B aldaera (sinpl.)	de (Wike- dia)	ca (IEC, 1989) sinpl.	Euskara	Oharrak
1	2	3	4										
ب	ب	ب	ب	bā' /b/ <sup>4</sup>	b	b	b	b	b	b	b	b	
ت	ت	ت	ت	tā' /t/	t	t	t	t	t	t	t	t	
ث	ث	ث	ث	thā' /θ/	ṯ	th	th	z	th	th	th	th	Fonema gaztelaniazko zeta da ( <i>cazar</i> )
ج	ج	ج	ج	jīm ʤ/ / /g/	ǧ	j	j	y/ch	dj [dj, j]	dsch/d dsch	j	j	Ingelesezko <i>jump</i> bezala, edo Argentinako <i>yo</i> bezala
ح	ح	ح	ح	ḥā' /ħ/	ḥ	ḥ (UN) ḥ (ALA- LC)	h	h	ḥ [h]	h	h	h <sup>5</sup> (hasperen dua)	Igurzkari faringari gorra (gaztelaniazko <i>jota</i> hitzaren antzekoa, baina ez berdina)
خ	خ	خ	خ	khā' /x/	ḫ (ISO) ḫ (DIN)	kh	kh	j	kh	ch	kh	kh	Gaztelaniazko <i>jamón</i> bezala
د	—			dāl /d/	d	d	d	d	d	d	d	d	

<sup>4</sup> Maileguzko hitz batzuetan /p/ balioa du.

<sup>5</sup> Hasperendua da, eta ahoskatu egiten da. Beraz, deklinatzeko orduan, kontsonantez amaitutako hitzak bezala deklina daiteke (« j » letraz amaituko balitz bezala). Adibidez, Palestinako (*Al-*)*Fatah* erakunde ezaguna (arabieraz, فتح) honela deklina daiteke: *Fatah(-)ek*, *Fatah(-)eko*, *Fatah(-)en*...

Arabiera 1 : bakaturik ; 2 : hitz- bukaeran ; 3 : tartean ; 4 : hitz- hasieran				Letra- izena eta fonetika (IPA)	ISO 233 DIN 31635	UN BGN- PCGN ALA-LC	en (sinpl.)	es (EFE)	fr Beirut, B aldaera (sinpl.)	de (Wike- dia)	ca (IEC, 1989) sinpl.	Euskara	Oharrak
1	2	3	4										
ذ	—			dhāl /ð/	ḍ	ḍ	dh	d	dh	dh	dh	dh	Igurzkari horzkari ozena. Gaztelaniazko <i>dedo/cada</i> edo ingelesezko <i>this</i> bezala
ر	—			rā' /r/	r	r	r	r	r	r	r	r	
ز	—			zāy /z/	z	z	z	z	z	z	z	z	Ahostuna. Ingelesezko <i>size</i> bezala, frantsesezko <i>zébre</i> bezala edo italierazko <i>caso</i> bezala
س	س	س	س	sīn /s/	s	s	s	s	s/ss <sup>6</sup>	s	s/ss	s	
ش	ش	ش	ش	shīn /ʃ/	š	sh	sh	sch/ch	ch	sch	x/ix	x	Euskarazko <i>kaixo</i> bezala
ص	ص	ص	ص	ṣād /sˤ/	ṣ	ṣ	s	s	ṣ <sup>7</sup> [s]	s	s/ss	s	Fonema faringaria, konplexua
ض	ض	ض	ض	ḍād /dˤ/	ḍ	ḍ	d	d	ḍ [d]	d	d	d	Fonema faringaria, konplexua
ط	ط	ط	ط	ṭā' /tˤ/	ṭ	ṭ	t	t	ṭ [t]	t	t	t	Fonema faringaria, konplexua
ظ	ظ	ظ	ظ	zā' /ðˤ/	ẓ	ẓ/ẓ	z	z	ẓ [z]	z	dh	z	Fonema faringaria, konplexua (Gaztelaniazko <b>z</b> -ren antza du)
ع	ع	ع	ع	'ayn	ʿ	ʿ	ʿ	EZ DA	ʿ	ʿ	EZ DA	ʿ <sup>8</sup>	Faringari konplexua

<sup>6</sup> Bi bokal artean gertatzen denean, <ss>.

<sup>7</sup> Izen ofizial batzuetan, <ç>.

<sup>8</sup> Aukeran uzten da <ʿ> tiletaren bidez transkribatzea edo ez transkribatzea.

Arabiera 1 : bakarturik ; 2 : hitz- bukaeran ; 3 : tartean ; 4 : hitz- hasieran				Letra- izena eta fonetika (IPA)	ISO 233 DIN 31635	UN BGN- PCGN ALA-LC	en (sinpl.)	es (EFE)	fr Beirut, B aldaera (sinpl.)	de (Wikiped- ia)	ca (IEC, 1989) sinpl.	Euskara	Oharrak
1	2	3	4										
				/ʕ/				TRANS KRIBAT ZEN	[a]		TRANS KRIBAT ZEN		(ez da hamza letra bezalakoa)
غ	غ	غ	غ	ghayn /ɣ/ <sup>9</sup>	ḡ (ISO) ḡ (DIN)	gh	gh	g <sup>10</sup>	gh	gh	gh	gh	Igurzkari belar ozena, okzitanierazko <i>digoc</i> bezala
ف <sup>11</sup>	ف	ف	ف	fā' /f/ <sup>12</sup>	f	f	f	f	f	f	f	f	
ق <sup>13</sup>	ق	ق	ق	qāf /q/	q	q	q <sup>14</sup>	q	q <sup>15</sup>	q	q	q	Herskari ubular gorra. Euskarak eta gure inguruko hizkuntzek ez dute fonema hori. Adibidez, <i>Qatar</i> estatu-izen arautuan ageri da
ك	ك	ك	ك	kāf /k/	k	k	k	k	k	k	k	k	

<sup>9</sup> /g/ maileguzko hitz askotan. Egipton, grafema horren ordeaz, <ج> erabili ohi da.

<sup>10</sup> <e> eta <i> aurrean, <gu> transkribatzen da.

<sup>11</sup> Afrikako ipar-mendebaldean, grafema horrek فب forma izan ohi du.

<sup>12</sup> Baita /v/ ere, maileguzko hitz batzuetan.

<sup>13</sup> Afrikako ipar-mendebaldean, grafema horrek فف forma izan ohi du.

<sup>14</sup> Batzuetan, <g> transkribatzen da.

<sup>15</sup> Batzuetan, <g> transkribatzen da ; <e> eta <i> aurrean gertatzen bada <g> hori, <gu> transkribatzen da.

Arabiera 1 : bakaturik ; 2 : hitz- bukaeran ; 3 : tartean ; 4 : hitz- hasieran				Letra- izena eta fonetika (IPA)	ISO 233 DIN 31635	UN BGN- PCGN ALA-LC	en (sinpl.)	es (EFE)	fr Beirut, B aldaera (sinpl.)	de (Wike- dia)	ca (IEC, 1989) sinpl.	Euskara	Oharrak
1	2	3	4										
ل	ل	ل	ل	lām // <sup>16</sup>	l	l	l	l	l	l	l	l	
م	م	م	م	mīm /m/	m	m	m	m	m	m	m	m	
ن	ن	ن	ن	nūn /n/	n	n	n	n	n <sup>17</sup>	n	n	n	
ه	ه	ه	ه	hā' /h/	h	h	h	h	h	h	h	h	
ء				hamza h /?	,	,	,	EZ DA TRANS KRIBAT ZEN	EZ DA TRANS KRIBAT ZEN	,	EZ DA TRANS KRIBAT ZEN	EZ DA TRANSKRIB ATZEN	Hamza letrak glotisaren ixtea [ʔ] —hau da, ahotsaren etetea— adierazteko erabiltzen da. Ez da arabiar alfabetoaren jatorrizko letretako bat. Alif letraren gainean ezartzen da, adierazteko ez dela bokal huts bat, glotisaren ixtea baizik < ʔ >. Batzuetan, lerroan ere ager daiteke, letra oso bat izango balitz bezala, eta ez alif letraren gainean. Bakarrik edo letra bati atxikitako zeinu diakritiko moduan ager daiteke.
ة				tā' marbūṭ	ġ (ISO) h / t	ah / at / atan	a / at / atan	EZ DA TRANS	a [ah]	EZ DA TRANS	t <sup>18</sup>	a <sup>19</sup> / at <sup>20</sup>	ta marbuta letra ta letraren aldaera bat da, eta hitzen amaieran erabiltzen da. Nagusiki genero femeninoa

<sup>16</sup> /f/ balioa du *Allah* hitzean soilik.

<sup>17</sup> Hitz-amaieran, <ne>.

<sup>18</sup> *Status constructus* forman dagoenean; bestela, ez da transkribatzen.

<sup>19</sup> *Status absolutus* forman dagoenean.

<sup>20</sup> *Status constructus* forman dagoenean.

Arabiera 1 : bakarturik ; 2 : hitz- bukaeran ; 3 : tartean ; 4 : hitz- hasieran				Letra- izena eta fonetika (IPA)	ISO 233 DIN 31635	UN BGN- PCGN ALA-LC	en (sinpl.)	es (EFE)	fr Beirut, B aldaera (sinpl.)	de (Wike- dia)	ca (IEC, 1989) sinpl.	Euskara	Oharrak
1	2	3	4										
				ah /a/, /at/	(DIN)			KRIBAT ZEN		KRIBAT ZEN (STATU S KASUA N, t TRANS KRIBAT ZEN DA)			hitzetan agertzen da, Arabiera estandar modernoan, amaierako /a/ soinua adierazten du. Berez, hitz-amaieran erabiltzen den ta (ت) hitzaren aldaera bat da; hitza bakarturik ahoskatzen denean, /ah/ gisako zerbait ahoskatzen da ta marbuta, /h/ ahul-ahul batez. Horregatik, transkripzio sinplifikatu batzuetan ez da transkribatzen. Izena <i>status constructus</i> forman dagoenean (izen mugatu batek ondoren beste izen batekin genitibo kasuko erlazioan dagoenean hartzen duen forma), /t/ ahoskatzen da (hau da, hitz-amaieran: /at/). Amaieran ta marbuta letra duen hitza era adberbialean erabiltzen denean, /atan/ ahoskatzen da hitz-amaiera.
و	و	—		wāw /w/, /u:/	w	w	w	u	ou, w	u, w	w	w <sup>21</sup> / u	Ikus bokal luzeak
ي edo ى	ي edo ى	ي	ي	ya' /j/, /i:/	y	y	y	y/i	i, ī, y <sup>22</sup>	i, y	i	y <sup>23</sup> / i	Ikus bokal luzeak

<sup>21</sup> Bokal artean edo bokal aurrean.

<sup>22</sup> <⤵>: diptongoaren bigarren elementua denean; <y>: hitz-hasieran edo bokal artean.

<sup>23</sup> Bokal artean edo bokal aurrean.

Arabiera 1 : bakaturik ; 2 : hitz- bukaeran ; 3 : tartean ; 4 : hitz- hasieran				Letra- izena eta fonetika (IPA)	ISO 233 DIN 31635	UN BGN- PCGN ALA-LC	en (sinpl.)	es (EFE)	fr Beirut, B aldaera (sinpl.)	de (Wike- dia)	ca (IEC, 1989) sinpl.	Euskara	Oharrak
1	2	3	4										
ي				(yā')		īy, ī, iyy	iy, i					iy / i <sup>24</sup>	<p>ي <sup>w</sup> <b>Xadda</b> arabiar alfabetoaren zeinu osagarri baina beharrezko bat da. Kontsonantea bikoiztu egiten dela adierazteko balio du.</p> <p>( ي bokalaren gainean ere ager daiteke)</p>
آ	ا	—		'alif madda h	ā, ā,	ā, 'ā	a, 'a	a	a	a, i, u, ,	a	a	Ikus bokal luzeak

<sup>24</sup> Hitz-amaieran

## 2- Bokal laburrak

Bokal laburrak irudikatzeko, zeinu diakritikoak erabiltzen dira. Dena den, zeinu horiek, batez ere, testu didaktikoetan erabiltzen dira, edo zuzen ebakitzea garrantzitsutzat jotzen den kasuetan; adibidez, Koranen. Testu arruntetan, ez dira erabiltzen.

Bokal laburrak	Izena	ALA-LC	Ingeles sinplifikatua	Katalana (IEC, 1989) sinpl.	Euskara
اَ	fat'ḥa	a	a	a	a
اُ	ḍamma	u	u	u	u
اِ	kasra	i	i	i	i

## 3- Bokal luzeak

Bokal luzeak adierazteko, ي (y) eta و (w) erdikontsonanteak erabiltzen dira, eskuarki *i* eta *u* bokal laburrei lotuta *i* eta *u* bokal luzeak sortzeko. Eta alif letra (ا) ere erabiltzen da, *a* bokalari lotuta, *a* luzea sortzeko.

Bokal luzeak	Izena	ALA-LC	Ingeles sinplifikatua	Katalana (IEC, 1989) sinpl.	Euskara
اَآ	fatḥa 'alif	ā	a	a	a
اِي	fatḥa 'alif maqṣūra	á	a	a	a
اُو	ḍamma wāw	ū	u	u	u
اِي	kasra yā'	ī	i	i	i

#### 4- Artikulua (asimilazioak)

Arabieraz, artikulu mugatu bakarra dago: ال (al-). Hala ere, artikularen ondoren dagoen letra “eguzki-letra” bat baldin bada, ahoskatzean ﻻ letra asimilatu egiten da eguzki-letrarekin, eta, beraz, ﻻ letra desagertu eta eguzki-letra bikoiztu egiten da.

Transkripzio-sistema batzuetan, asimilazioa transkribatu egiten da, eta beste batzuetan ez. Transliterazio-sistema akademikoetan, bestalde, ez da erabiltzen, ahoskerari baino ez baitagokio. Euskararako transkripzio sinplifikatuan, komeni da asimilazioak erabiltzea, ahoskatze zuzena hobeto islatzen baitu.

Artikulua izenari marratxo batez lotuta idatziko da. Artikulua letra larriz hasita idatziko da leku-izenaren hasieran gertatzen denean, hala nola **Al-Jazira** toponimoan, baina letra xehez hasita idatziko da toponimoaren erdian gertatzen denean, hala nola **Deir ez-Zor** toponimoan.

Eguzki-letra	ALA-LC	Euskara	a/- artikuluaren forma asimilatua
ت	t	t	at-
ث	th	th	ath-
د	d	d	ad-
ذ	dh	d	ad-
ر	r	r	ar-
ز	z	z	az-
س	s	s	as-
ش	sh	x	ax-
ص	ṣ	s	as-
ظ	ḍ	d	ad-
ط	ṭ	t	at-
ظ	ẓ	z	az-
ن	n	n	an-

-----

Euskaltzaindiak 2011ko maiatzaren 27an onartua, Donostian.

(Exonomastika batzordeak 2011ko abenduaren 16an paratua)